

## IRAKASLEAK

### **2020-2021 LEKUALDATZE LEHIAKETA.**

Destinoen behin-behineko esleipena, [maisua maistren kidegoan](#).  
**Erreklamazioak/uko egiteak: martxoaren 12tik 18ra arte**, biak barne.

### **ZERBITZU EGINKIZUNAK.**

Hezkuntza Ikuskaritzaren zonalde-buruak hautatzeko prozesua. [Deialdia](#).  
**Eskaerak aurkezteko epea: apirilaren 6ra arte**, egun hori barne.

### **ZERBITZU EGINKIZUNEN LUZAPENAK.**

Aurreko ikasturteetarako baimendutako zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura argitaratu da. Eskaerak [irakaslegunea.euskadi.eus](#) bidez. [Deialdia](#).  
**Eskaerak aurkezteko epea: martxoaren 15etik 23ra arte**, biak barne.

### **ORDEZKOGAIEN ARAUDI KO III. ERANSKINEAN ALDAKETAK.**

Ordezkapenentarako izangaien Araudiko III. eranskinaren (titulazioen eta espezialitateen taula) azken aldaketak argitaratu berri dituzte. [Ebazpena](#).

### **ESLEIPEN TELEMATIKOAN HARTUTAKO BAKANTEEN LABURPENA.**

**STEILAS**ek urtero abuztuko esleipen telematikoan azken hiru urteetan hartutako lanaldi osoko bakanteen gutxieneko puntuazioen laburpena egiten du. Dokumentua eskuragarri [steilas.eus](#) helbidean.

## HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

### **ESLEIPEN TELEMATIKOEN LANPOSTUEN LABURPENA.**

**STEILAS**ek urtero abuztuko esleipen telematikoan esleitutako lanpostuen gutxieneko puntuazioaren laburpena egiten du. Lanaldi osoak eta partzialak. Dokumentuak eskuragarri ondorengo loturetan.

- [Hezkuntza Laguntzako Espezialistak](#)
- [Beste kategoriak](#)

**ZORIONAK IKASTETXEETAKO LANGILE ETA ZUZENDARITZA TALDEEI.**  
**ZUEN LANARI ESKER, IKASTETXEAK AURRERA ATERA DIRA!!!**